| Ardatz estrategikoa: | 5. ardatza.- Administrazio elektronikoa | Proiektua: | 5.2. Zerbitzu elektronikoen eskaintza |
|---|---|---|---|
| **Azpiproiektua:** | **5.2.1. Zerbitzuak digitalizatzeko plana** | | |
| **Deskribapenaren laburpena:** | Eusko Jaurlaritzako sailen eta organismo autonomoen zerbitzuak eta prozedurak digitalizatzea planifikatu nahi da, bai herritarrei, enpresei eta beste administrazioei eskainiak, bai barrukoak (ofiziozkoak). | | |

**Helburu orokorrak:**

- Herritarrek zerbitzu publikoetarako irispide elektronikoa izateko eskubidea bermatzea.

**Helburu operatiboak:**

| | Abendua (2014) | Abendua (2015) | Abendua (2016) |
|---|---|---|---|
| Zerbitzu elektronikoen % (*) | 70 | 85 | 100 |

(*) helburu zen digitalizazio-mailara iritsi diren zerbitzuen ehunekoa

**Egikaritzea:**

- Zerbitzuak Digitalizatzeko Plana ez da aurreikusitakoaren arabera egikaritzen ari; besteak beste, DACIMAek digitalizatzeko proiektuak kudeatzeko giza baliabideetan duen defizitaren ondorioz.
- Hona hemen lortu nahi den digitalizazio-mailaren barruan dauden zerbitzu eta prozeduren %ak:

| | |
|---|---|
| **2013ko abendua.** | **62,4 %** |
| 2014ko abendua: | 63,2 % |
| 2015eko abendua: | 65,9% |
| **2016ko abendua:** | **68,5%** |

- Aurrerapausoak eman dira ofiziozko prozeduren digitalizazioan; hala, erabat digitalizatu dira, zeharkako izaerarekin, EAEko Administrazio Orokor guztirako eta haren mende dauden organismo autonomoetarako prozedura hauek: barne kontsultak eta eskaerak; zirkularrak, zerbitzuko jarraibideak eta aginduak, Euskadiko Ekonomia Arduralaritzako Epaitegian (EEAEn) egin beharreko erreklamazio ekonomiko-administratiboak; eta zehapen-prozedura (salbu eta diziplinazko zehapenak).

| Arduraduna: | Aldi baterako aurreikuspena: | Egikaritzeko benetako epea: | Egoera: | Balorazioa: |
|---|---|---|---|---|
| DACIMA | Epea: 3 urte<br>Hasiera: 2014<br>Amaiera: 2016 | Hasiera: 2014<br>Amaiera: | ☐ Amaitua<br>■ Aribidean<br>☐ Hasi gabe | ☐ Positiboa<br>■ Hala-nolakoa<br>☐ Negatiboa |

**Oharrak:**